

IZENA

1. Osatu esaldi hauek zein bere izenarekin.

Bidasoa


erle

izurde

Tutera

orein

- Ezti apur bat egiteko _____ askok egin behar izaten du bere lana.
- Valderejoko parkean _____ talde bat ikusi genuen.
- Herenegun _____ bat agertu zen Getariako portuan.
- Hondarribian itsasoratzen da _____ ibaia.
- Erriberako herririk garrantzitsuena _____ da.



2. Sailkatu izen hauek eta idatzi taulan.


- katua
- gitarra
- aitona
- Europa
- Patxi
- kirola
- Hondarribia
- Edurne
- aldizkaria
- Anboto

Izen bereziak	Izen arruntak

IZEN MOTAK. Erreparatu testuan nabarmendutako hitzei eta osatu taula.

Izen zenbakarriak	Zenbatzaileak

Izen zenbakaitzak	Izenondoak



EROSKETA ARDURATSUA

Etxeko zakarrontziak **aldaketa izugarria** izan du azken urteetan. Birziklatzearen aroaren aurretik, **zakarrontzi bat** izaten genuen: azal eta **hezur asko** izaten ziren, eta plastikozko **poltsa gutxi**.

Gaur egun, hiruzpalau zakarrontzi behar ditugu, **produktu gehienak** bilduta etortzen baitira; bilgarridun produktuek **arrakasta ikaragarria** dute. Baina, kontuz, **denbora luzea** irauten duten arren, **kutsadura handia** sortzen baitute.

1. IZEN ZENBAKAITZAK. Osatu esaldiak izen zenbakaitz bakoitzaren ondoan izenondoa idatzita.

■ Itsaso _____ dago eta marinela portuan geratu dira.

luzea

■ 94 urte ditu baina osasun _____ du oraindik.

larria

■ Kirola egin ondoren, gose _____ dugu orain.

ona

■ Arazo _____ omen du gure ikaskideak.

handia

■ Denbora _____ behar izan dute errepide berria egiteko.

gaiztoa

2. IZEN NEURGARRIAK. Bete esaldietako hutsuneak, parentesi arteko hitzak egoki ordenatuz.

- _____ erosten ditugu azokan astero. (kilo/ naranja/zazpi)
- _____ behar ditugu natilak egiteko. (litro/hiru/esne)
- _____ tabernari, mesedez. (baso/bat/ur)
- _____ prestatu du aitona guztiontzat. (bat/ babarrun/ lapiko)
- Zoan dendara eta ekarri _____ (metro/oihal/hiru)
- _____ beharko dugu (gramo/azukre/berrehun)